



Osasuna Politika Guztietan

BATZORDE TEKNIKOA



Txosten
sektoriala **2019**

Hezkuntza

2021eko martxoa



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

CURRICULUM ESPARRUA

2018. urteko txostenean aipatzen zena, hau da, Curriculum Dekretuek ohitura osasungarriei buruzko helburuak eta edukiak jasotzen dituztela eta horiek zeharkako oinarrizko konpetentzietan eta konpetentzia diziplinarretan (zientzietako eta hezkuntza fisikoko arloetan/gaietan) lantzen direla gogoratu behar da. Curriculumaren esparruan Osasun Saileko ekarpenak hartu dira barne, adinez txikikoak eta alkoholaren programari arreta berezia emanez.

Era berean, azpimarratu behar da ikastetxe bakoitzak, bere autonomia pedagogikoaren esparruan, ohitura osasungarrien inguruko programak ezartzen dituela bere tutoretza-ekintza planetan, eta tartean, Udalen bitartez jasotzen dituzten era askotako eskaintzak.

2019ko ikasturtean zehar, hain zuen ere, ondorengo ekintzak nabarmen daitezke:

- **PEG**¹-ren barruan (Prestakuntza Ekimen Globala), gaitasun zientifikoaren prestakuntza-moduluak curriculumeko hainbat elementu garatzen ditu, besteak beste ohitura osasungarriei buruzko gaiak (Natur Zientzien curriculuma Lehen Hezkuntzan, "Gizakia eta osasuna" blokea, eta DBHko 3. mailako Biologia eta Geologiako curriculumak: "Pertsonak eta osasuna" 3. blokea).
- Berritzegune Nagusian eta Biologia eta Geologia arloan osasunari buruzko proiektuak garatzen dituzten material didaktikoak sustatzea.

¹ Zer da?

Hezkuntza Sailaren proposamen hau, Oinarrizko Hezkuntzako mailak (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ematen dituzten ikastetxe publiko guztiei zuzenduta dago.

Helburua:

2017-2018, 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetan garatuko den Prestakuntza Ekimen Globalaren helburua ikasleen gaitasunen garapen-maila eta, ondorioz, emaitzak, hobetzea da, bai eta ikastetxe guztietan konpetentzien garapenean eta ebaluazioan oinarritutako irakaste-eta ikaste-prozesuak gauzatzeko beharrezkoak diren eskola-giroa eta baldintzak bermatzea ere.

Hori guztia zenbait jarduera-eremu landuz egingo da, erantzuna emateko sistemari buruzko txosten orokorretan (PISA, diagnostiko-ebaluazioak), eskola-emaitzetan, Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planean eta ikastetxe bakoitzaren testuinguruan hautemandako premiei.

-
- Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleentzako prestakuntza-saioak, **Europako e-Bug** proiektuaren proposamen didaktikoei dagokionez, higiena eta antibiotikoen erabilera kontrolatua sustatzeko:

- Bilbo-Abandoko Berritzegunea (20 parte-hartzaile).

- Irungo Berritzegunea (20 parte-hartzaile).

Proiektu horrekin lotutako material didaktikoak 40 hizkuntzatan aurki daitezke, euskaraz barne, e-Bug-en webgune ofizialean (<https://e-bug.eu/>).

- **“The implementation of e-Bug, an infection prevention and control educational intervention: survey across 14 countries”**, artikulua argitalpenean parte hartzea JAC aldizkarian – Antimicrobial Resistance - Education and Research in antimicrobial stewardship and resistance (British Society for Antimicrobial Chemotherapy). Egileak: Catherine Hayes, Vicki Young, Carla Brown, Pia Touboul Lundgren, Dimitra Genimatta, Jette Holt, Egbert Weisheit, Arantza Rico, Carlos Garcia (Berritzegune Nagusia), Paola De Castro, Clodna AM McNulty.

Irungo Berritzegunean, **BISAOSAN BIXI** kanpainarekin lankidetzan aritu gara. Ekimen hori Bidasoa ESItik sortu da, ohitura osasungarriak sartzeko eta, batez ere, Bigarren Hezkuntzako ikasleen sedentarismoan eta dieta desegokian eragiteko. Ikastetxeek parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak hauek izan dira: ikastetxean erreferentziazko pertsona bat izatea, ikasle inaktiboak identifikatzea eta elikaduraren eta jarduera fisikoaren gaia lantzea. Horrela, honako jarduera hauek antolatu dira:

- Gosari osasungarri tailerrak (Osakidetzako erizainak + berritzegunea).
- Aktiboak ez direnei zuzendutako tailerrak (udaletxeko kirol-teknikariak + berritzegunea).

Tailer horiek Bidasoako 8 ikastetxetan egin dira: Hirubide BHI, Txingudi BHI, Toki Alai HLHI, Talaia HLHI, San Vicente Ikastetxea, Egiluze Gurutzearen Alabak (Hondarribia), Eguzkitza BHI eta Ama Guadalupekoa ikastetxea. Guztira 25 talde izan dira.

Jarduera fisikoa sustatzeari dagokionez, Gorputz Hezkuntzako irakasleek jarduera fisikoa sustatzen dute ikasleen artean, bai eskola-orduetan, bai aisialdi-irteeretan. Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetarako 2019-2020 ikasturteko zirkularrak honako hau zehazten du gorputz hezkuntzari dagokionez:

- Lehen Hezkuntza: gutxienez 9 orduko ordutegia. Erreferentziazko ordutegia: 10,5 ordu. 1. mailan: 2 ordu; 2. mailan: 2 ordu; 3. mailan: 2 ordu; 4. mailan: 1,5 ordu; 5. mailan: 1,5 ordu eta 6. mailan: 1,5 ordu.
- Bigarren Hezkuntza: gutxienezko ordutegia: 8 ordu. 1. DBH 2 ordu; 2. DBH 2 ordu; 3. DBH 2 ordu; 4. DBH 2 ordu.

Berritzegune Nagusian Gorputz Hezkuntzako aholkulariaren irudiari eutsi zaio, eta horren funtzioak, besteak beste, Gorputz Hezkuntzako irakasleen etengabeko prestakuntza dinamizatzea eta gainerako berritzeguneekin koordinatzea da:

- YOGA, AKROYOGA ETA MINDFULNESS. APLIKAZIO METODOLOGIKOA LEHEN HEZKUNTZAKO GORPUTZ HEZIKETA SAIOETAN. NEURO HEZIKETA FISIKOA: MOTRIZITATEA IKASKUNTZA ETA GARAPEN PERTSONALERAKO ZERBITZUAN
- AKROSPORTETIK ANTZERKI MUSIKALERA. JARDUERAK SORTU, GARATU ETA EBALUATU GORPUTZ ADIERAZPENAREN BARRUAN, IKASLEEN TREBEZIAK SUSTATZEKO.
- MUSIKALA. JARDUERAK SORTZEA, GARATZEA ETA EBALUATZEA IKASLEEN TREBETASUNAK SUSTATZEKO GORPUTZ-ADIERAZPENA
- “Physically Active Learning” (PAL) jardunaldia: Mugitu eta Ikasi
- IKASKUNTZA KOOPERATIBOA GORPUTZ HEZIKETAN
- NEURO HEZIKETA FISIKOA: MOTRIZITATEA IKASKUNTZA ETA GARAPEN PERTSONALAREN ZERBITZURA
- <http://www.gorputzhezkuntzeta.hezkuntza.net/eu/baliabideak> gorputz-hezkuntzarekin lotutako baliabideak argitaratzeko.

Aldi berean, zonako berritzeguneetan honako ikastaro hauek dinamizatu dira:

EKINTZA	PARTE-HARTZAILEAK
GORPUTZ ADIERAZPENA ETA TALDEKO DANTZAK	25
GORPUTZ HEZKUNTZA: KOMPETENTZIA MOTORRA	97
GORPUTZ HEZKUNTZA EMOZIONALARI BURUZKO UNITATE DIDAKTIKO BATEN GARAPENA	16
GORPUTZ HEZKUNTZA LAN TALDEA	13
YOGA, AKROYOGA ETA ARRETA OSOA GHn	26
GORPUTZALDIAK PROIEKTUAREN AURKEZPENA	6
IK/KI GORPUTZ HEZKUNTZAN	32
GORPUTZ HEZIKETA MINTEGIA	5
GORPUTZ HEZKUNTZA MINTEGIA (LH)	9
GORPUTZ HEZKUNTZA MINTEGIA (BH)	11
GORPUTZ HEZIKETA MINTEGIA	30
OSASUNA ETA ESKOLA (LEHEN HEZKUNTZA)	21
OSASUNA ETA ESKOLA (BIGARREN HEZKUNTZA)	11

Eskola-eremutik jarduera fisikoa sustatzeko beste ekimen batzuk:

- ACEX, Hezkuntza Sailaren programa, lehiarik gabeko eskolaz kanpoko kirol jarduerak sustatzeko.
- Gorputz-hezkuntzako klaseetan inklusibitatearen sustatzailearen figura sartzea: Kirolenek aholkularitza eta sustapen-lanak egiten ditu, desgaitasunen bat duten ikasleen parte-hartzea errazteko (berritzeguneetako prestakuntza, esku-hartzeak eta berariazko ikasleen jarraipena).
- Hauspoa proiektutik (bigarren hezkuntzako 62 ikastetxe) jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak eskaintzen eta antolatzen dira. Ikastetxe gehienek jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak eskaintzen dituzte:
 - Gorputz-hezkuntza, jarduera fisiko kooperatiboak.
 - Gorputz-adierazpena, Breakdance, dantza modernoak, funkya, erlaxazioa.
 - Antzeki tailerra, bizikleta, defentsa pertsonala, parkourra, xakea, piragua...

“Physically Active Learning” jardunaldia, ikasten den bitartean bizitza aktiboagoa sustatzen duen irakaskuntza-metodologia bati buruzkoa. Ekimen horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun, Hezkuntza eta Kultura sailak elkarrekin egin beharreko bide baten lehen urratsak egiten hasi dira, modu koordinatuan. Jardunaldi horretan, beren testuingurua azaldu ondoren (eskola aktiboak), matematika eta ingelesa modu aktiboan irakasteko moduaren erakustaldi praktikoa eskaintzen da, bai eta ikastetxe baten ohiko irakaskuntza-garapenaren barruan jarduera fisikoaren sustapenean eragiten duten beste alderdi batzuk ere, hala nola joan-etorri aktiboak, aisialdi aktiboak eta abar.

Guraso eta ikasle elkarteek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak ere aipa daitezke: kirol anitza, jolas kooperatiboa, psikomotrizitatea, saskibaloia, futbola, patinajea, esku pilota, gimnasia erritmikoa ... Horiek gauzatzeko, diru-laguntza deialdi bat dute urtero.

GAITUZ SPORT-EN LANKIDETZA

Erakunde² honekiko lankidetzari eusten zaio Kirolene ikastetxeko (Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa) irakasle bat jardunaldiaren zati batez liberatuz, berritzeguneekin batera eta Berritzegune Nagusiarekin eta bertako aniztasuneko eta Gorputz Hezkuntzako

² Gaituz Sport, Gorputz Hezkuntzaren arloan hezkuntza-behar bereziei alternatibak bideratzen dizkien eta aniztasunari kiroletik ekiten dion Programa da.

Helburu hauek ditu:

- Eskola-ingurunea sentikortzea, kirolaren bitartez aniztasunaren inguruko balio positiboak zabalduz, aniztasunarekiko gizarte tolerante eta sentiberago bat lortzeko.
- Gorputz Hezkuntza eta Jarduera Fisikoaren arloan estrategia integratzaile eta normalizatzaileen inguruan prestatzea eta ikastetxean ezgaitasuna duten pertsona-taldean kirol-jarduera sustatzea.

arduradunekin koordinatuta, ikastetxeetan kirolari lotutako prestakuntza-jarduerak aipatu helburuekin bultzatzen. Zentzu honetan, hiru aholkularitza- eta sustapen-ataza egiten dira edozein ezgaitasun duten ikasleen parte-hartzea ikastetxeetan proposatzen diren jardueretan errazteko (prestakuntza Berritzeguneetan, esku-hartzeak eta ikasleen berariazko jarraipena).

EAE-KO HEZKUNTZA-SISTEMARAKO II. HEZKIDETZA-PLANA, BERDINTASUNAREN ETA TRATU ONAREN BIDEAN (2019-2023)

Plan hori jendaurrean aurkeztu da, 2019ko martxoaren 6an eta 7an Euskalduna Jauregian egindako "ESKOLA ABIAN: INKLUSIOAREN ETA BERDINTASUNAREN BIDEAN" jardunaldietan.

Berrikuntza Zuzendaritzak, Hezkuntza Ikuskaritzak, Emakundek, Hezkuntza Sailburuordetzako berdintasun-teknikariak eta laguntza-zerbitzuetako aholkulariek (berritzeguneak) osatzen duten batzorde teknikoa planaren garapena diseinatzen eta horren jarraipena egiten ari da.

Euskal Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza Planak **nerabeen eta gazteen arteko hezkuntza afektiboa eta sexuala lantzen du** espezifikoki berdintasuna eta tratu ona lortzeko bidean (2019-2023)³, **Osasun, Hezkuntza eta Gazteria sektoreek batera parte hartuz**, 1.5 helburuaren -hezkuntzaren eta komunitatearen eremuan genero-indarkeriaren aurkako prebentzio-programak- eta 5.4 helburuaren -Adingabeak eta alkohola programa- bidez: eskola-curriculumean jokabide osasungarriari buruzko gaitasunak eta edukiak sartzea.

Esan daiteke, plan horren babespean 2019an zehar eutsi egin zaiola ikastetxe publikoek eta itunpekoek 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetarako hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egiteko deialdiari. Berritasun garrantzitsu bat aipatu behar da deialdi horretan, beste deialdi batean parte hartu duten ikastetxeek parte hartu ahal izango baitute, betiere parte hartu zuten deialdiaren epea amaitu bada. Horrela, hasitako proiektuek jarraipena izateko aukera eman nahi izan da. Deialdi honetan 50 ikastetxe publiko eta 35 itunpeko sartu dira, eta bi ikasturtetan zehar hezkidetza-proiektua diseinatu eta ezarriko dute.

³ http://www.euskadi.eus/web01-a3hbconv/es/contenidos/informacion/inn_convivencia_conv_positiva/es_def/index.shtml

DEIALDIA	13/14	14/15	15/16	16/17	17/18	18/19	19/20	GUZTIRA
Ikastetxe publikoak	50	57	48	0	28	27	50	260
Ikastetxe pribatu/hitzartuak	0	35	15	19	0	15	35	119
Guztira	50	92	63	19	28	42	85	379

- Hezkuntzako sailburuordearen ikasturte hasierako ebazpenean ezartzen da ikastetxe guztietan berdintasun eta hezkidetzako ordezkaria izendatu beharko dela ikastetxe bakoitzeko Ordezkaritza Organo Gorenean. Esan behar da ikastetxeen %90ean hezkidetzako arduradun izendatutako pertsona bat dagoela, eta ikastetxeen %75ek berdintasunerako ordezkari bat izendatu dutela Ordezkaritza Organo Gorenean. Zonaldeko mintegietan parte hartzen duten ikastetxe gehienek hezkidetzako batzorde mistoak dituzte martxan.
- Zonako Berritzegune bakoitzean hezkidetzako arduradun bana dago. Halaber, II. Hezkidetzeta Plana garatzeko bi arduradun daude Berritzegune Nagusian. Hilero mintegi bat egin da zonaldeko berritzeguneekin. Berritzegune Nagusiko arduradunek materialak prestatu dituzte ikastetxeentzat, martxoaren 8rako eta maiatzaren 17rako genero-indarkeria desagerrarazteko.
- Berritzegune Nagusian bi arduradun daude.
- Hezkuntza Sailak irakasleentzat eskaintzen duen etengabeko prestakuntza-eskaintzan genero-ikuspegia izaten da kontuan ezarritako baremoekin.
- Egindako beste prestakuntza-jarduera batzuk Prest Gara programaren bidez egindako 4 ikastaro eta Emakunderen bidez egindako 4 ikastaro eta bi programa izan dira (Nahiko eta Beldur Barik).

INGURUGELA⁴

Ingurugelaren 1. jarduera-lerroan (ikerketa eta esperimentazioa) Eskola Agenda 21⁵ programa agertzen da. Programa horren barruan, ikastetxeek lehentasunezko gai bat garatzen dute urtero, eta, ondoren, hartutako konpromisoekin eta neurriekin jarraitzen dute. 2019-2020 ikasturtean landutako gaien artean ondorengo hauek daude:

⁴ **Ingurugelek** irakasleei eta ikastetxeei laguntzeko ekipamendu publikoen sarea osatzen dute, eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza-sisteman ingurumen-hezkuntzako planak eta programak koordinatzen dituzte.

⁵ 2003. urtean **Agenda 21 Programa** abiatu zen. Programa kontsolidatua ez ezik erreferente ere bada Hezkuntzan iraunkortasunari dagokionez, ikuspegi integral batetik lantzen du ingurumen hezkuntza, hezkuntza komunitate osoa biltzen du eta Tokiko Agenda 21ekin koordinatuta dago. Ikastetxeek beren udalari aurkezten dizkiote Agenda 21E proiektuaren emaitzak eta beren eskaerak aurkezten dizkiote udalerriko ikastetxe guztiak deitutako jardunaldi batean. Ikastetxeek ikasle bat izaten dute ordezkari eta horrek azaldu eta galdatzen dizkio Udalari egindako azterketaren ondoriozko eskaerak.

-
- Elikadura osasungarria eta jasangarria: 49 ikastetxe.
 - Kontsumo arduratsua: 58 ikastetxe.
 - Mugikortasuna: 2 ikastetxe.
 - Klima-aldaketa eta osasuna: 78 ikastetxe.
 - STOP Plastikoak: 113 ikastetxe.

Gainera, ikastetxe gehienetan (%80ko estimazioa) elikadura-ohiturak lantzen dira: gosari osasungarria, fruta egunak, eta abar. Ikastetxeen %49,8tan eskola-baratzea dago (modalitate desberdinak).

Ingurugelaren 2. jarduera-ildoan (irakasleen prestakuntza), honako ikastaro hauek eman dira aurreko puntuan adierazitako gaien inguruan:

Ikastaro on line:10 Irakasle:.....201

Ikastaro presentzialak:.....36 Irakasle:.....747

BESTE LANKIDETZA BATZUK:

- Lankidetzaren Zaintza Epidemiologikoko Unitatearekin, Gipuzkoako Osasun Publikoko Zuzendariordetzarekin, Lehen Hezkuntzako ikasleen obesitatea aztertzearekin lotutako **Aladino Euskadi 2019 Proiektua** zabaltzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea **“Jangela osasungarriak”** programan.